


Euskal AEko industria jarduera %1,0 jaitsi zen 2024ko otsailean

Aurreko hilaren aldean, 2024ko urtarrila, produkzioa %0,3 jaitsi da

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegi homogeenari dagokionez, Euskal AEko industria-produkzioa aurreko urteko hil berean izandakoa baino %1,0 txikiagoa izan da 2024ko otsailean.

Aurreko hilaren aldean, Euskal AEko industria-jarduera %0,3 murriztu da azken hilabeteen, urtaroen eragina zuzenduta.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, *Energiaren* produkzioa %8,6 igo da 2024ko otsailean, aurreko urteko hil beraren aldean. Sektore honetan sartzen dira energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura eta petrolioaren finketa.

Ekipamenduko ondasunen produkzioa %2,9 hazi da, aurreko urteko otsailarekin alderatuta. Sektore honek barne hartzen ditu ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta tren-materialen eraikuntza eta aeronautikaren edo itsasontzien eraikuntza.

Kontsumo-ondasunek ere urte arteko joera positiboa izan dute 2024ko otsailean, produkzioa %1,4 hazi baita sektore osoan. Igoera hori *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* portaerari zor zaio, bertan baitaude elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa, farmazia-produktuak eta jantziak egitea. Hain zuzen ere, azken hauek %4,8ko igoera

izan dute. *Kontsumo-ondasun iraunkorren* ekoizpenak, aldiz, %12,4 egin du atzera, hala nola altzarien eta etxeko tresnen fabrikazioak.

Bitarteko ondasunetan %0,3ko urte arteko jaitsiera izan da, metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioan, industria kimikoan eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioan barne.

insertatabla_21195

Maila bereiziagoan, Euskal AEko industriako pisurik handieneko sektoreen artean, 2024ko otsailean produkzioaren urte arteko hazkundera izan zutenak ondokoak izan ziren: *Makineria eta ekipoa* (%2,0), *Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriak* (%1,2) eta *Metalurgia eta metalezko produktuak* (%0,2). Jaitsierarik handienak, aldiz, *Material eta ekipa elektrikoetan* (%8,7) eta *Zurgintza, papera eta arte grafikoetan* (%3,7).
insertatabla_21194

Industria-Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiru lurralde historikoetan 2024ko otsailean. Araban, produkzioaren jaitsiera %3,4koa izan da, eta Bizkaian eta Gipuzkoan, %0,2koa.

2024KO OTSAILEKO BALANTZE METATUA

Urteko lehen bi hilabeteetako metatuan, Industria-produkzioaren indizea %0,4 jaitsi da, *Bitarteko ondasunen* %1,5eko jaitsierak eraginda. *Energiak*, aldiz, bilakaera positiboa metatu du, %8,8ko igoerarekin aurreko urteko aldi beraren aldean. *Ekipa-ondasunetan*, otsailera arte metatutako produkzioa %2,4 igo da eta *Kontsumo-ondasunetan* %0,9.

Lurralde historikoka, 2024ko lehen bi hilabeteetako metatua balantze negatiboarekin itxi da Araban, %3,3ko jaitsierarekin. Gipuzkoan produkzioa %0,7 jaitsi da eta Bizkaian produkzioa %1,7 gehitu da, aurreko urteko aldi beraren aldean. .

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hilabete honetako indizea laginaren **%90,18**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62